## KULTURA SAILA

## Zk-5382

218/2003 DEKRETUA, irailaren 23koa, Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordea sortu eta erregulatzeko dena. (EIEB).

Funtsezko eraldaketa izan du ikus-entzunezkoaren sektoreak azkenengo hamarkadan, bai teknologiari, bai ekonomiari dagokionez, eta gizarte modernoetan ahaztu ezin den garrantzia lortu du.

Hala ere, ikus-entzunezkoaren sektoreak tradizioan izan duen funtzioa mantentzen jarraitzen du, hau da, ikuspegi zabalenean (musika, sorkuntza literarioa, antzerkia, dantza, zinematografia), kultura eta artearen sorkuntzarako beharrezkoa den euskarria izatearena, baita hedabideen funtzezko baliabide eta euskarria izatearena ere. Aipamen berezia merezi du sektore honek euskarak gizartean duen presentzia garatzeko eta finkatzeko duen garrantziak.

Euskal ikus-entzunezkoaren sektorean eragin zuzena duten jarduerak —erakunde bakoitzak bere eskumen eremuaren barrukoak— komunean jartzeko eta proposamenak egiteko foroa izango da batzordea. Izan ere, sektore horretako eremuak asko baitira, baita erakundeen maila ezberdinek markatzen duten eskumen banaketa ere.

Baliabide hori zehazteko, eta erakunde bakoitzari dagokion eskumena ahaztu gabe, inplikatuak dauden eragile publikoek parte hartuko duten organoa sortzea beharrezkotzat jotzen da; hala ere, Kultura Sailari dagozkion zereginak azpimarratu behar dira, hain zuzen ere, ikus-entzunezkoaren sektoreari hain lotuak daudenak, beteak beste, jarduera artistiko eta kulturalak, eta haien zabalkundea, gizarteko hedabideak, euskararen sustapena.

Hainbat eremutan, hain zuzen ere, ikus-entzunezkoaren sektorean eragina dutenetan, protagonismoa duten Euskal erakunde publikoen jarduera anitzak arrazionalizatzeko hasierako urratsak ematea da dekretu honen helburua, beti ere bakoitzaren eskumenak errespetatzen direla, baita lortu nahi diren helburuak lortzeko erakundeek beraiek dituzten interesak ere.

Horregatik guztiagatik, Kultura sailburuaren proposamenez, Gobernu Batzordeak 2003ko irailaren 23ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea, izaera eta atxikipena.

Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordea kulturan eskumena duen sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa sortzen da. Ordezkatutako erakundeenak diren eta ikus-entzunezkoa jarduerarekin zerikusia duten jarduerak komunean jartzeko, eztabaida-

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-5382

DECRETO 218/2003, de 23 de septiembre, de creación y regulación de la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco (CIVAL).

El sector audiovisual ha experimentado en la última década una transformación sustancial, tanto en lo que a la perspectiva tecnológica corresponde, como en la vertiente económica del mismo, adquiriendo un peso específico nada desdeñable en las sociedades modernas.

Ello no obstante, el sector audiovisual mantiene su tradicional función de ser el soporte necesario de la creación artística y cultural en su más amplia visión (música, creación literaria, teatro, danza, cinematografía), así como instrumento y soporte esencial de los medios de comunicación. Mención específica merece la importancia de este sector para el desarrollo y consolidación del euskera en su presencia social.

Los múltiples ámbitos sectoriales afectados, así como la distribución competencial en los diferentes niveles institucionales conlleva la oportunidad de que las diferentes instancias involucradas dispongan de foro de puesta en común y propuesta de las diferentes actuaciones que, en sus respectivos ámbitos competenciales, tenga incidencia directa en el sector audiovisual vasco.

A fin de concretar tal instrumento, dentro de las competencias que a cada instancia corresponde, se considera necesario crear un órgano de participación de todos los agentes públicos implicados, si bien han de resaltarse las importantes funciones asignadas al Departamento de Cultura, en sectores tan íntimamente ligados al sector audiovisual como son las actividades artísticas y culturales y su difusión, los medios de comunicación social, la promoción del euskera, entre otros.

El presente Decreto pretende constituir un primer paso dirigido a racionalizar las múltiples actuaciones de las Instituciones públicas vascas con protagonismo en diferentes ámbito con incidencia en el sector audiovisual, dentro del necesario respeto a sus respectivas competencias y el interés de las propias Instituciones en lograr los objetivos que se aspiran alcanzar.

Por todo ello, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 23 de septiembre de 2003,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto, naturaleza y adscripción.

Se crea la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco (CIVAL), como órgano colegiado adscrito al Departamento competente en materia de cultura para la puesta en común, debate y, en su caso, coordinación de las actuaciones vinculadas al sector audiovisual de

tzeko, eta, kasuan kasu, koordinatzeko forua izango da, eta sektore horren sustapen eta garapen hoberena lortzea du helburu.

Sortu den batzordearen ondorioetarako, Euskal ikus-entzunezkoaren sektorearekin lotuak dauden eremuak honakoak dira: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleengana irudien edo ahotsen bidez hel daitezkeen edukiak, eta autonomia erkidego horretan kokatuak dauden operadoreek gauzatuak edo transmitituak direnak alde batetik; eta bestetik, ikus-entzunezko edukia duena transmititzeko euskarriei buruzkoak eta horiek kaptatzeko edo retransmititzeko baliabideak.

*2. artikulua.–* Zereginak.

Adierazitako helburua lortzeko honako zereginak izango ditu Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordeak:

a) Erakunde parte hartzaileek ikus-entzunezkoaren sektorea sustatzeko proposatu dituzten jarraibideei buruzko argibideak eta aholkuak ematea, batzorearen iritzia eskatzen dutenean.

b) Euskal ikus-entzunezkoa koordinatzeko helburu orokorrarekin zerikusia duten sustatu zein laguntzeko programa orokorrak, jarduera zehatzak edo esku hartzeko bestelako neurriak proposatzea.

c) Aipatu helburuak lortzeko eta sailen arteko lankidetza sustatzeko neurriak proposatzea.

d) Sustatzeko eta laguntzeko programa orokorren jarraipena eta balorazioa egitea, baita jarduera zehatzena eta ikus-entzunezkoarekin lotura duten bestelako neurriena ere, horien inguruko txostena edo laguntza eskatu denean.

e) Euskal ikus-entzunezkoarekin lotura duen beste edozein erakunde edo entitatek hala eskatzen duenean, beste programa, jarduera, edo neurrien inguruko txostena, proposamena, jarraipena edo balorazioa egitea.

f) Urteko oroit-idazkia egitea, honakoak jasoko dituena: Euskal ikus-entzunezkoaren barruko programa, jarduera eta bestelako neurriak, haiek egoki ikusten dituztenak, eta horretan sartuta dauden sektoreen arteko koordinazio eta eraginkortasuna zabaltzera eta indartzera zuzendutako proposamenak.

*3. artikulua.–* Osaera.

1.– Honako pertsonek osatuko dute Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordea:

a) Kultura sailburua, lehendakari izango dena.

b) Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetza Saileko ordezkari bat.

c) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko ordezkari bat.

las Instituciones representadas, a fin de lograr el impulso y más óptimo desarrollo de dicho sector en Euskadi.

A los efectos de la Comisión que se crea, se considerarán ámbitos vinculados al sector audiovisual vasco, tanto los relativos a los contenidos que con imagen o sólo voz pueden llegar a la población del País Vasco elaborados o transmitidos por operadores radicados en esta Comunidad Autónoma, como los relativos a los soportes de transmisión e instrumentos de captación o retransmisión de cualquier contenido audiovisual.

*Artículo 2.–* Funciones.

Para la consecución del objetivo señalado, la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco, desarrollará, entre otras, las siguientes funciones:

a) Informar y asesorar sobre las líneas de fomento dirigidas al sector audiovisual que las Instituciones participantes sometan a la consideración de la Comisión.

b) Proponer programas generales de impulso y apoyo, actuaciones concretas u otras medidas de intervención en relación con los objetivos generales de coordinación de la actividad audiovisual vasca.

c) Proponer medidas que potencien la cooperación interdepartamental y faciliten la consecución de los objetivos señalados.

d) Seguimiento y valoración de los programas generales de impulso y apoyo, de las actuaciones concretas o de las demás medidas que en relación a la actividad audiovisual, hayan sido sometidas a su informe o asesoramiento.

e) Informar, proponer, efectuar el seguimiento y la valoración de aquellas otros programas, actuaciones o medidas sean sometidas a su consideración por cualquier otra Institución o entidad vinculada al sector audiovisual vasco.

f) Elaboración de una Memoria anual relativa al conjunto de Programas, actividades u otras medidas, del conjunto de la actividad audiovisual vasca que estimen oportunas, incluyendo propuestas dirigidas a extender e intensificar la coordinación y eficiencia de los diferentes sectores implicados.

*Artículo 3.–* Composición.

1.– La Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco estará integrada por las siguientes personas:

a) El Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de cultura, que actuará como Presidente.

b) Una persona representante de la Vicepresidencia del Gobierno Vasco.

c) Una persona representante del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkari bat.

e) Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko bi ordezkari.

f) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko ordezkari bat.

g) Kultura Saileko bi ordezkari.

h) Foru Aldundietako ordezkari bana.

i) Zuzenbide Pribatuko Euskal Irrati Telebista ente publikoaren ordezkari bat.

j) Kultura Saileko funtzionario bat, idazkari lanak egingo dituena, botorik ez, baina iritzia eman ahalko duena.

2.– Botoa eman dezaketen batzordekideak goi mailako karguak izango dira administrazioaren eskalan. Aldundien kasuan eskumena duen foru-organoak izendatuko ditu, sailetako ordezkariak, kasuan kasu, dagokion sailburuak, eta Euskal Irrati Telebistaren kasuan, zuzendari nagusiak egingo du izendapena. Sailetako ordezkariak sailei atxikita dauden zuzenbide pribatuko ente publikoen edo elkarte publikoen zuzendariak izan daitezke.

Kultura sailburuak izendatuko du idazkari lanak egingo dituen pertsona.

3.– Batzordeko lehendakariak, bere kabuz edo boto eskubidea duen beste batzordekideak hala eskatua, dei egin ahalko die beste entitate edo erakundeetako ordezkariei bileretara joan daitezen, dagokion bileraren gai zerrendako gairen batek bereziki eragiten badie.

Habilitazio horren barruan, momentuoro bermatuko da landu behar diren gaiek eragindako sorkuntza sektore, edo/eta industrialen presentzia eta hitz egiteko eskubidea. Salbuespen bakarra gai baten inguruan erreserba mantendu behar izatea, eta ondorioz, presentzia hori mugatu behar izatea izango da.

4.– Gaia edozein dela ere, batzordearen bileretara joaten direnek eztabaidatutako gaien eta erabakitakoaren ingurukoaz isiltasuna gorde beharko dute, batzordeak horren berri emateko erabaki duen bideen bidez informazio hori zabaldu arte.

5.– Kultura Saileko Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzari dagokio Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordeari laguntza teknikoa ematea, eta zeregin hori betetze aldera gaien programazioaz eta prestaketaz arduratuko dira, baita dokumentazioaz zein ondoren adierazitakoaz ere:

a) Batzordeak proiektuak garatzeko egoki ikusi eta eratzen dituen taldeak koordinatzeaz.

d) Una persona representante del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

e) Dos personas representantes del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

f) Una persona representante del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

g) Dos personas representantes del Departamento de Cultura.

h) Una persona representante de cada una de las Diputaciones Forales.

i) Una persona representante del Ente Público de Derecho Privado Radio Televisión Vasca.

j) Una persona funcionaria del Departamento competente en materia de cultura que desarrollará las funciones de Secretaría de la Comisión con voz y sin voto.

2.– Las personas con derecho a voto que formen parte de la Comisión deberán tener la condición de Alto Cargo de la Administración, y serán nombradas por el órgano foral competente en el caso de las Diputaciones Forales, por la persona titular del correspondiente Departamento en tal caso y por el Director General del Ente Público de Derecho Privado Radio Televisión Vasca, en este caso. La representación de los Departamentos podrá recaer igualmente en Directivos de los Entes Públicos de derecho privado y de las Sociedades Públicas adscritas al correspondiente Departamento.

La persona que desempeñe las funciones de Secretaría será nombrada por la persona titular del Departamento competente en materia de cultura.

3.– La persona que ostente la Presidencia, a instancia propia o de cualquiera de los otros miembros con voto de la Comisión, podrá convocar para asistir a las reuniones a representantes de otras entidades e instituciones especialmente afectadas por los asuntos del orden del día de la sesión correspondiente.

En el marco de esta habilitación, en todo momento se garantizará la presencia y voz de los sectores creativos y/o industriales que pudiesen verse afectados por los asuntos que se vayan a tratar, salvo que por la necesidad de mantener reserva acerca de la correspondiente materia se acuerde la necesidad de restringir tal presencia.

4.– En todo caso, todas las personas presentes en las sesiones de la Comisión deberán guardar el necesario sigilo de los asuntos tratados y acuerdos adoptados hasta el momento en el que a través de los cauces que se establezcan se difundan.

5.– Corresponderá a la Dirección de Creación y Difusión Cultural del Departamento de Cultura, prestar el apoyo técnico a la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco, desarrollando funciones de programación y preparación de asuntos y documentación y específicamente las siguientes:

a) Coordinar los grupos de desarrollo de proyectos que al efecto se estimen convenientes constituir por la Comisión.

b) Batzordekideek esleitu zaizkien zereginak gauza ditzaten behar duten hasierako lan materiala, hau da, dokumentuak eta datuen tratamendua gauzatzeaz.

c) Batzordeari bidezko interesa duen edozein pertsonak egingo dizkion eskaerei arreta egiteaz eta aurretik gauzatzeaz, beti ere esleitu zaizkien zereginen barruan.

*4. artikulua.–* Aholku Batzordea.

1.– Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakundeen arteko Batzordeak Aholku Batzordea izango du, bertako kideak prestigio handiko pertsona independienteak eta sektorearekin lotura duten bestelako erakundeak izango direla.

2.– Ahoku Batzordeak haren gogoeten berri emango dio Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordeari.

3.– Aholku Batzordea edozein momentutan bildu ahalko da Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordeko lehendakariak eskatzen duelako, eta haren kideei dei egingo zaie batzordearen ohiko bileretara joan daitezen non hitz egin bai, baina botorik ezin izango duten eman.

*5. artikulua.–* Proiektuak garatzeko taldeak.

1.– Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordeak berariazko lantaldeak osatuko ditu lankidetza proposamenak eta programak garatzeko. Lantalde horietan programa gauzatzeko interesa duten erakunde zein sailek, eskumen eremuaren arabera, izendatutako teknikari adituek hartuko dute parte; parte har dezakete ere talde horiei esleitu zereginekin lotura duten ikus-entzunezkoaren sektoreko hainbat eremutan aipagarriak diren erakundeek

2.– Proiektua onartzea, eta gero gauzatzea sail eta erakunde bakoitzari dagokio, beti ere, bakoitzaren eskumenen barruan. Horretarako, eta programak batera gauzatzeko, erakundeek erabaki bateratuak hartu edo hitzarmenak sinatu ahalko dituzte.

3.– Lantaldeak esleitutako proiektua gauzatu ondoren, bertan behera geldit判 dira.

*6. artikulua.–* Bileretarako deialdia.

Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordeak, gutxienez, ohiko bilera bi egingo ditu urtean, eta aparteko bilerak nahi beste egin ahalko du, lehendakariak berak deitua, edo, gutxienez, hiru batzordekidek lehendakariari eskatu badiote.

*7. artikulua.–* Funtzionamendu gastuak.

Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakundeen arteko Batzordearen funtzionamendu gastuak Kultura Sailaren aurrekontu-kredituen kargura izango dira.

b) Elaborar la documentación y tratamiento de los datos que permitan a los componentes de la Comisión disponer del material de trabajo inicial para acometer las funciones asignadas.

c) Atender y preelaborar las peticiones que cualquier persona con interés legítimo pueda efectuar a la Comisión en el marco de las funciones que le vienen asignadas.

*Articulo 4.–* Consejo Asesor.

1.– La Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco dispondrá de un Consejo Asesor en el que participarán tanto personal independiente de reconocido prestigio como otras entidades ligadas al sector.

2.– El Consejo Asesor dará traslado de sus consideraciones a la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco.

3.– El Consejo Asesor podrá reunirse en cualquier momento a instancia de la Presidencia de la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco y sus miembros serán convocados para asistir a las reuniones ordinarias de la Comisión con voz pero sin voto.

*Artículo 5.–* Grupos de desarrollo de Proyectos.

1.– Para el desarrollo de propuestas de cooperación y realización de programas, la Comisión Interinstitucional del Audiovisual del País Vasco constituirá grupos de trabajo específicos. En estos grupos participarán técnicos expertos designados por cada Institución y Departamento implicado en su elaboración según su área competencial, pudiendo integrarse igualmente aquellas entidades representativas de los diferentes ámbitos del sector audiovisual implicados en el cometido asignado a tales grupos de trabajo específicos.

2.– La aprobación y posterior ejecución del proyecto corresponderá a cada Departamento e Institución en la parte que le corresponda, dentro de sus competencias. A tal efecto, se podrán formalizar acuerdos y convenios entre las instituciones competentes para la ejecución conjunta de los programas.

3.– Los grupos de trabajo se disolverán tras la elaboración del proyecto encomendado.

*Artículo 6.–* Convocatoria de reuniones.

La Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco celebrará al menos dos sesiones ordinarias al año, pudiendo celebrar cuantas sesiones extraordinarias consideren oportunas, bien por iniciativa de su Presidenta, bien a instancia de tres vocales de la Comisión formalmente dirigida a la Presidenta.

*Artículo 7.–* Gastos de funcionamiento.

Los gastos de funcionamiento de la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco serán con cargo a los créditos presupuestarios del Departamento competente en materia de cultura.

AZKEN XEDAPENA

***Lehenengoa.***– Araubidearen garapena.

Kultura sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapenak eman ditzan, bereziki Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendurako berariazko arauei dagozkionak. Batzorde hori dekretu honen 5. artikuluan xedatu da.

***Bigarrena.***– Lehenengo osaera.

Kultura sailburuak, dekretu hau indarrean sartzen den egunetik kontatua, hilabeteko epean, dei egingo die lurralde historikoetako ahaldun nagusiei, parte hartzen duten sailetako titularrei, eta Zuzenbide Pribatuko Euskal Irrati Telebista ente publikoaren zuzendari nagusiari, Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordean erakunde bakoitzaren ordezkari izango dena izenda dezaten.

Aipatu deia egin eta ondorengo bi hilabeteak pasa ondoren, beti ere, Euskal Ikus-entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordekideen erdia izendatu bada, kide horiek osatua eratuko da batzordea. Hala ere, horrek ez du eragotziko izendatzeko falta direnak beranduago, hau da, izendatzen direnean sartu ahal izatea.

***Hirugarrena.***– Indarraldia.

Dekretua indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharramunean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko irailaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto y en particular las relativas a la composición y normas específicas de funcionamiento del Consejo Asesor establecido en el artículo 5 del presente Decreto.

***Segunda.***– Primera composición.

En el plazo de un mes desde la entrada en vigor del presente Decreto la Consejera de Cultura cursará invitación a los Diputados Generales de los Territorios Históricos, a las personas titulares de los Departamentos participantes y al Director General del Ente Público Radio Televisión Vasca para que designe a la persona que vaya a representar a la correspondiente entidad en la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco.

Transcurrido el plazo de dos meses desde la invitación formulada y, siempre que hayan sido designados al menos la mitad de los miembros de la Comisión Interinstitucional del Audiovisual Vasco, el mismo quedará constituido con tales miembros, sin perjuicio de que en cualquier otro momento posterior se integren los posteriormente designados.

***Tercera.***– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-5383

EBAZPENA, 2003ko irailaren 19koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, 2003rako mugaren bi alde eta eskualde arteko lankidetzarako proiektuei laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Uztailaren 28ko 189/1998 Dekretuaren bitartez, mugaren bi alde eta eskualde arteko lankidetzarako proiektuen laguntzak arautu ziren.

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-5383

RESOLUCIÓN de 19 de septiembre de 2003, del Secretario General de la Presidencia, por la que se convocan subvenciones a proyectos de cooperación transfronteriza e interregional para 2003.

El Decreto 189/1998, de 28 de julio, establece la regulación de las subvenciones a proyectos de cooperación transfronteriza e interregional.